

## 2026KO MARTXOAREN 9KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita seiko martxoaren 9an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 110 zenbakidun zerrenda, BI MILA HIRUEHUN ETA HEMERETZI euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimokoa (2.319,50 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

Fakturak aztertu ondoren, 2026ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 7 zenbakidun zerrenda, ZORTZI MILA HIRUEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIRU euro ETA HOGEITA HEMERETZI zentimokoa (8.373,39 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

### II.- GOIEKI S.A.RI 2026 URTEKO EKARPENA.-

Goierriko Garapen Agentzia S.A.k (GOIEKI) bere partaideak diren Udalek 2026rako egin beharreko ekarpenak planteatu ditu.

Ekarpenak Udal bakoitzak dituen biztanleen arabera dira eta Lazkaori honako ekarpenak dagozkie:

- Ekarpen orokorra	57.046,44 €
- Gizarte arloko ekarpena	8.815,62 €
- Ateak Ireki	1.966,54 €
- Goierrri Barnetik	9.832,71 €
-Urbanizazio Orokorra (3. Zatia 2026)	10.014,97 €

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, GOIEKIRi 2026ko ekarpen hauek onartu egin ditu aho batez.

### III- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BITARTEZ, GAS NATURALAREN HORNIDURA KONTRATUARI ATXIKITZEA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kontratazioen Zentralaren bidez, goian adierazitako espedientea prestatzeko lanak abian jarri nahi ditu.

Udalak beharrezkoa du hau, eta kontratazioa beharrezkoa da udalak bere baliabideekin behar horri erantzuna ematea ezinezkoa duelako.

Ikusirik onuragarria izan daitekeela Kontratazio Zentralaren bidez hau egitea, atxikitzeko eskaera egitea proposatzen da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

#### IV.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BITARTEZ, IGOGAIUEN MANTENU ZERBITZUAREN KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kontratazioen Zentralaren bidez, ORONA S.COOP. enpresari esleitu dio espedientearekin bat egin duten foru eta udal erakundeentzat Udal erikinetako igogailuen mentenu kontratatuzeko esparru-akordioa.

Lazkaoko Udala erakunde horietako bat izanda, eta Igogailuen mantenua beharrezkoa duenez kontratua esleipendun enpresari esleitzea eta kontratua formalizatzea proposatzen da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

#### V.- SANTA MAGDALENAKO GARAJEEN KUOTAREN ALDAKETA ETA AURREKO 5 URTEETAKO ERREGULARIZAZIOA.-

2026ko urtarrilaren 19an Santa Magdalenako garajeen bileran udalak duen garajearen inguruan hartutako erabakiak:

- Egungo kuota mantentzea erabakitzen da.
- 26 € ordaindu izan du udalak, 74 € ordaindu beharko lituzkeenean. % 6,701eko partaidetza kuota du. Egoera erregularizatzeko eskaria egitea adosten da, azken bost urteei dagozkioen zenbatekoak ordaintzeko eskatuz.
- Denera 2.880 € ordaintzea

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

#### VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

### Euskara ikasten ari direnei.-

2025/2026 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Bi ikasle izan dira eta emango zaien kopurua 732,00 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2026ko aurrekontuaren 480.01.335.00 partidatik.

### VIII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

#### - Lazkaoko Musika Banda.-

2026ko otsailean monjetan kontzertua antolatzeagatik eta kontzertuetarako erositako arropen gastuei aurre egiteko, 3.757,85 € ordaintzea

#### - Festa programa.-

2025eko azaroaren 17ko Tokiko Gobernu batzordean 2026ko Lazkaoko festetako esku programaren lehiaketako portada irabazleari, 200 €ko saria ematea erabaki zen. Lehiaketara aurkeztutako lanak 4 izan dira. Martxoaren 4ean egindako batzordean, bertara aurkeztutako 4 lanen arteko hautaketa egin ondoren saria aho batez Lexuri Vazquez Martinez Lazkaotarrari ematea erabaki zen.

### XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez dago galderarik.

### X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.